

FUTBOLA

Arozarena: «Lortu dudana harro nago, gogorra izan den arren»

Iruñeko jokalaria hamar urte eman ditu harrobitik atera nahian

Osasuna denboraldi nahiko eskasa egiten ari den arren —Valladoliden kontrako partidua horren lekuko— Pedro Arozarenentzat ez da gauza erraza izan 1991-1992 denboraldia ahaztea. Atzelari iruñearrak aurten lortu du bere jaioterriko taldean jokatzeko. «Duela bi hilabete igandero jokatzen hasi nintzen eta orain oso pozik nago, lortu dudana harro».

LAKASTA / IRUÑEA

Arozarena 17 urte zituelarik hasi zen Oberena taldean, futboleko ederki jokatzen bazekiela erakusten. Osasunara azkar ailegatu zen arren, hamar urte pasa behar izan dira hasierako hamaiakakoan igandero agertzeko. Hau gogorra izan da oso 'Perolorentzat'. «Osasun egotea oso gogorra izan da niretzat. Entrenatzaileek ez naute kontutan hartu, eta urte asko eman ditut maiz jokatu gabe». Hala eta guztiz, Pedro Arozarenak guzti horri ez dio garrantzi handiegirik eman nahi. «Gogorra izan den arren, azkenean lortu dut. Pertsona nahiko baikorra naiz, eta nahiago dut gauzen alderdi ezatsegina kontutan ez izatea». Dena den, Osasun 'Perolorena' ez da kasu arraroa. Nafarroako taldeak aspaldidanik Taxoareko harrobia ondo zaindu duen arren, oso zaila izaten da gazteentzat lehenengo taldera ailegatzea. Esate baterako, aurten 'gorritxoek' lesioekin arazo larriak izan dituzten arren, Puado izan da Osasuna Promesasetik lehen taldera 'igo' den bakarra, eta gauzek horrela segitzekotan 26 urte bete beharko ditu Zabalzaren konfidantza eskuratu ahal izateko.

Arozarenak denboraldi honetan beste urteetan falta zitzaion



Kostata baina Osasun titular izatea lortu du Arozarenak. JOXE

SOSLAIA

Pilotari-Futbolaria

Perolo' Arozarena futbolaria izatea, bat bateko erabakiaren ondorioa da. 18 urterekin Oberena taldean futboleko ari zenean, aldi berean puntako pilotaria zen. Iruindarrak palarekin ederki ematen zion pilotari, eta mundu horretan segitzekotan, urrutira ailegatzeko aukera zuela diote jokatzen ikusi zutenek. Hala eta guztiz, futbolaren bidetik jotzea erabaki zuen Arozarenak. Hamar urte eman ditu gogor entrenatzen, eta 26 urterekin ametsik desiratuena egia bilakatzea lortu du: Osasun titularra izatea alegia.

heldutasuna atxeki dio bere jokoari. Horren zergaitia iraunkortasunean dagoela eritzi dio atzelari gorritxoak. «Lehen txirripaz ere ez nituen lau partidu jarraien jokatzen, eta horrek urduri jaritzen ninduen. Baina hori normala da, edonori gertatzen zaio. Orain igandero jokatzen dudanez, lasaiago aritzen naiz». Lasaitasun hori lortzen Castellonen emandako urteak ere lagundu du. «Castellonen entrenatzaileak konfidantza zuen nigan, eta igan-

dero jokatzen nuen. Horrek behar nuen esperientzia eman zidan».

Osasunak behin-betiko promozio eta jaitzierako mamua atzean uzteko 34 puntura ailegatu behar dela uste du Arozarenak. «Nere ustez 34 punturakin ez genuke arazorik izanen». Igandeko atzerapausua dela eta, puntuak lortzeko premiak berriz ere joko txarra eta urduritasuna ekar dezake El Sadarrera. 'Peroloren' ustez «horren aurka kemena da Osasunaren arma bakarra».

UEFAko finalaren lehen partidua Torinon

J.G.O. / DONOSTIA

Europar finalei hasera emango zaie gaur arratsaldean Torinon. Dell Alppi estadioan Ajax eta Torino aurrez aurre izango dira UEFA txapelketako finalaren lehen partiduan. Ikusmina handia da. Bi taldeek txapelketa handia egin dute eta bidean talde indartsuak utzi dituzte: Genoa, Real Madrid eta Osasuna kasu. Torinok etxean jokatzeko ematen duen abantailaz baliatu nahi da, gaur bertan finala erabakita uz-

teko. Italiar tiffosiak partidu osoa bere taldeari animoak ematen arituko dira. Presio hori erabakiorra izan zen Real Madrident aurkako finalerdian, eta Ajaxen aurka emaitza bera izateko itxaropena dute torinotarrek. Baina Ajaxek erakutsi zuen finalerdietan talde bikaina duela. Genoari 2-3 irabazi zion bere estadioan, italiarren jokoa eta presioa bikain gaindituta. Eta orain titulua irabazi nahi dute, berriz ere Italiako talde baten kontrako partiduan.

Bi futbol eredu erabat ezber-

dinak aurrez aurre izango dira Dell Alppi zelaian. Italiarrek joko gogorra eta indartsua egiten duten bitartean holandarrek abiadura eta teknikan oinarritzen dute berea.

Aurreko urteetan italiarrak nagusi izan dira UEFA txapelketan Inter eta Juventus taldeen eskutik. Torinok nagusitasun hori jarraipena eman nahi dio. Ajaxek, aldiz, berriz ere Europako titulua eskuratu nahi du. Emaitza hamabost egun barru Amsterdamen.



Urrutia burumakur; denboraldi osoan ezin izango du jokatu. SIMAL

Athletic taldearen eritegia bete-beteta dago egunotan

PELLO AIESTARAN / BILBO

Gauzak gaizki hasten direnean gaizki bukatzen omen dira. Athletic taldeari dagokionez, esatera hori guztiz egia bihurtu da, azkenaldi honetan gauzak guztiz okertzen ari bait zaizkio. Aurreko asteetan, zurigorriek zenbait lesionatu izan dituzte, horietako batzuk garrantzi handikoak gainera. Azkenaldi honetan, bazirudien gauzak zertxobait konpontzen ari zirela —Oskar Tabuenka eta Patxi Ripodasek esate baterako, Atletico de Madrid taldearen kontra jokatzeo aukera izan zuten—, baina astelehenean eta atzo ikusitakoaren arabera, hobetzen baino okertzen ari dira berriro ere.

Josu Urrutia, Vicente Calderon futbol zelaian lesionatuta, baja izango da denboraldi amaiera arte. Lepauztaia hautsita duela ziurtatu zuten atzo, eta orkatilako minandako tratamendua ere eman diote. Oskar Tabuenkak ere ez du denboraldi honetan jokatzeo aukerarik izango. Athletic taldeko defentsa gaztea atzo goizean abiatu zen Munchen aldera, bertan Muller doktoreak aztertu dezan. Tabuenkak arazo fisikoak ditu aspaldidanik, baina arazo horiek nondik datozkion oraindik ere zehazteke dago.

ESKURZA Xabier Eskurza eta **ETA** Kuko Ziganda izan **ZIGANDA** ziren atzo Lezaman egindako entrenamenduan gauza positibo bakarra jarri zutenak. Biek lehen entrenamendua egin zuten lesionatuta egon ondoren, oraindik guztiz osatuta egoteko denbora gehiago beharko badute ere. Andoni Aiarzak ere bere kontura entrenatu zuen. 20 minutu egin zituen korrika eta aldageletara erretiratu zen.

Eta noski, ezin falta lesionatu berririk. Andoni Lakabegek ziztada izan zuen belauneko nerbioan eta ikusi egin behar hurrengo egunetan zer nolako bilakaera izaten duen.

Aranguren, Athleticeko entrenatzaileak arazoak izan ditzaieke datorren ihardunaldian Osasuna taldearen kontra jokatuko duen hamaikakoa osatzeko orduan. Lezaman adierazi zuenez, Atletico de Madrident kontra gaitzeak ez du taldearen egoera larriagotu. «Egoera berdina da Vicente Calderonen galdu ondoren ere, gauzak ez daude lehen baino okerrago». Athleticek Osasunaren kontra jokatuko duen partiduak garrantzi berezia izango du. «Igandeko partidua garrantzitsua izango da, etxeko partiduak aurrrera atera behar bait ditugu».



SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandean, maiatzak 3, 19.00etan
Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - C.A. OSASUNA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUMean
Ostegunean, 17.30etik 20.00etara
Larunbatean, 10.30etik 13.30era
Igandean, 10.30etik 13.30era eta 17.30etik aurrera

EZAUGARRIA: "E" Txarteleria

LANCIA BILASA rekin dabil Athletic

Autonomia, 53 Tf. 427 58 20 BILBO Alameda Rekalde, 48 Tf. 410 12 55